

NOLA ERABILI

Menderakuntza bidezko perpausak -V-

-Osagarriak 12:32

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, perpaus osagarriei buruzko orrialdeen kopiak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean landu eta ikasleen zalantzak argitu.

-ATAL DRAMATIKO TXIKIAK:

-la / -nik -t(z)ea -lakoan baietz / ezetz

-Gidoiak irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Pertsonaiek esaten dutena adierazi.

Esaterako:

-la / -nik gidoian pertsonaiek zera diote:

OLATZ.- Eta Mikel? Non dago Mikel? Ez al da etorri?

LOREA.- Ez, ez da etorri. Etxean dagoela uste dut.

Ikasleak honela idatziko du:

Olatzek Mikel non dagoen eta ez al den etorri galdetzen du. Loreak ez dela etorri, etxean dagoela uste duela erantzuten dio.

-t(z)ea gidoian pertsonaiek zera diote:

LOREA.- Arazo bat daukat eta zurekin hitz egitea pentsatu dut.

MIKEL.- Arazo larria al da?

Ikasleak honela idatziko du:

Loreak Mikeli arazo bat daukala eta berarekin hitz egitea pentsatu duela esaten dio. Mikelek arazoa larria al den galdetzen dio.

osagarriak

| | | | |
|-------------|--------------|-----|----------------|
| -la | -nik | -na | -t(z)eko |
| -lako ustea | -la eta egon | | baietz / ezetz |

Perpaus osagarriek *zer?* galderari erantzuten diote eta osagarri zuzenaren lekua hartu ohi dute perpaus nagusian. Perpaus hauei maiz konpletiboak esaten zaie.

-la -nik

- OLATZ.-** Eta Mikel? Non dago Mikel? Ez al da etorri?
- LOREA.-** Ez, ez da etorri. Etxean dagoela uste dut.
- OLATZ.-** Etxean? Seguru zaude etxean dagoela?
- LOREA.-** Nik ez dut esan etxean dagoela. Uste dudala esan dut.
- OLATZ.-** Etxean ez dago, seguru nago. Ez ahaztu postetxera joan behar duela.
- LOREA** Eta nora uste duzu joan dela?
- OLATZ.-** Ez dakit. Baina nik ez dut uste etxean dagoenik.
- LOREA.-** Non egongo da, bada? Goizeko zortziak dira.
- OLATZ.-** Bai, zortziak dira. Telefonoz deitu diot eta zortzietan etorriko dela esan dit.
- LOREA.-** Beno, oraintxe etorriko da. Badakizu beti berandu etortzen dela.
- OLATZ.-** Bai, berandu etortzen dela badakit, baita nagi samarra dela ere.
- LOREA.-** Ez dut uste gaur aldatuko denik.
- LOREA.-** Mikel aldatu? Ezta ordainduta ere. Bukatu dut gutuna. Nik uste dut, esan nahi genuen guzti-guztia, eguna eta tokia barne, behar bezala adierazi dudala. Halere, irakur ezazu, ea zer iruditzen zaizun.

Etxean dagoela uste dut.

-la menderagailu osagarriak ez ditu izen sintagmak osatzen; beraz, ezin da deklinatu.

Zortzietan etorriko **dela** esan dit.

Perpaus nagusia baiezkoa bada, euskaraz, erdaraz ez bezala, perpaus osagarria perpaus nagusiaren ezkerretara kokatzeko joera dago.

Nik uste dut, esan nahi genuen guzti-guztia, eguna eta tokia barne, behar bezala adierazi **dudala**.

Batzuetan, perpaus osagarria luzea denean, perpaus nagusiarekin hasteko joera dago.

Nora uste duzu joan **dela**?

Perpaus osagarria galdetzaile batekin hasten bada, perpaus nagusia, galdetzailearen atzean nahiz perpaus osagarriaren ondoren jar daiteke.

Nik ez dut uste etxean dagoenik.

Esaldi nagusia ezezkoa bada, *-nik* menderagailu osagarria erabili ohi da, batez ere uste izan, pentsatu, iruditu, eman, iritzi eta horrelako aditzekin.

Ez ahaztu postetxera joan behar duela.

Zenbait aditzekin, ordea, *-la*, erabili ohi da. Besteak beste ahaztu, egia izan, duda izan eta horrelakoekin.

Zenbait euskalkitan *-laren* ordez *-na* erabili ohi da. Forma hau, *-la* ez bezala, menpeko perpausaren amaieran jarri behar da, eta zenbait aditzekin eta zenbait esapide eginekin erabiltzen da nagusiki. Hori bai, perpaus osagarria galdegai denean, ezin da *-na* erabili.

MIKEL.- Ez da nire errua.

OLATZ.- Badakit zure errua ez dena; beraz ez kezkatu eta lasaitu.

MIKEL.- Badakizu ezin dudana; Loreak ez dit barkatuko.

-t(z)eko

Aginte-perpausak direnean, bi eratara egin daitezke perpaus osagarriak: adizki jokatuekin, subjuntiboarekin, alegia, *-la* erabiltzen da; adizki jokatu-gabeekin, ordea, *-t(z)eko*.

Etorri naiz.

Etorri **dela** esan du.

Etorri.

Etortzeko esan du.

-t(z)ea

Mendeko perpausak agindua baino gehiago erregua edo nahia adierazten duenean, *-t(z)ekoren* ordez, *-t(z)ea* erabili ohi da.

- | | |
|----------------|---|
| LOREA.- | Aizu, Mikel, arazo bat daukat eta zurekin hitz egitea pentsatu dut. |
| MIKEL.- | Arazo larria al da? |
| LOREA.- | Ez, beno bai, beno ez, ez dakit. Olatzi merkatura joateko esan diot, eta haserretu egin da. |
| MIKEL.- | Horri arazo larria deitzen al diozu? |
| LOREA.- | Nahikoa larria da, bai. Zuk berarekin hitz egitea eskatu nahi dizut. |
| MIKEL.- | Mesedez, Lorea, ez zaitetz hain egoskorra izan. Zeuk hitz egin behar duzu berarekin, ez nik. |
| LOREA.- | Ezin dut, Mikel. Hamabietan etxera joango dela esan du, eta zu hamabiak baino lehen etxean izatea nahi dut. Arren eskatzen dizut. |
| MIKEL.- | Ez dakit zer esan, Lorea. Atzo platerak garbitzeko eta mahaia jasotzeko agindu nion eta ez zidan aurpegi onik erakutsi. Antzarak ferratzera joateko esan zidan. |
| LOREA.- | Hori ez nekien. Hobe izango da, orduan, nik bakarrik hitz egitea berarekin. |

-lako ustea

Batzuetan, *-la* menderagailuak *-ko* atzizkia har dezake izenlagun bihurtuz.

§

LOREA.- Gurekin joan nahi duela uste dut.

MIKEL.- Nik ere horixe bera uste dut.

Eurekin joan nahi duelako ustea dute.

Egitura horren ordez, *-n* menderagailua erabil daiteke.

MIKEL.- Gurekin joan nahi duelako ustea daukat.

LOREA.- Nik ere bai.

Eurekin joan nahi duen ustea daukate.

delakoa / direlakoak

delakoa eta *direlakoak* egiturak zenbait esapide eginetan erabiltzen dira. *izeneko* esapidearen antzeko esanahia daukate. Normalcan termino ezezagun edo ez-ohikoekin erabiltzen dira.

"Velvet Underground" **delakoak** arrakasta handia izan zuen.
Trufau zinegilea "Nouvel vage" **delakoaren** sortzaileetako bat izan zen.
"Artearen kontzeptu berriak" **direlakoei** buruz mintzatu da, Miki delakoa.
Miki **delako** horrek berriketa asko baina mami gutxi.
"Nouvel vage" **delako** taldekoen film jasanezinak egin zituzten.
"Velvet Underground" **delakoan** ibili zen Lou Reed.

-lakoan -la eta

Bi egiturak, bai *-lakoan*, bai *-la eta* ustea adierazteko erabiltzen dira.

OLATZ.- Etorriko al da Josu?
LOREA.- Etorriko **delakoan** nago.
MIKEL.- Ni ez nago hain seguru. Etorriko dela esan du baina.
LOREA.- Zu, Mikel, beti berdin. Mesfidati bat zara.
MIKEL.- Hara! Atzo ere hemen egon ginen, gure Josu etorriko **zelakoan**, baina ezer ez!
OLATZ.- Utzi Josuren gaia eta has gaitezen lanean!
MIKEL.- Ongi da. Zuk esango duzu.
OLATZ.- Hara! Ez al duzu gidoia irakurri?
MIKEL.- Egia esan...
OLATZ.- Ezin dut sinetsi. Ikasia ekarriko **zenutelakoan** nengoen, ikusten dut ez nuela asmatu.
LOREA.- Ni ere **horretan nengoen**, Olatz.
OLATZ.- Zuk irakurri al duzu?
LOREA.- Jakina. Irakurri ez ezik ikasi ere egin dut.
MIKEL.- Zuek lagunduko **zenidatela eta**, lasai etorri naiz.
OLATZ.- Laguntzeko prest gaituzu, Mikel, baina zure aldetik esfortzu txiki bat egingo **zenuela eta** geratu gara hamabietan. Jakin izan banu, lehenago geratuko ginatkeen.
LOREA.- **Banengoen, ba, ni ez zela erraza izango!**

-Etorriko delakoan nago.

-Atzo ere hemen egon ginen gure Josu etorriko zelakoan.

Egitura hauek egon aditzarekin erabiltzen dira gehienetan.

-baietz -ezetz

Perpauk osagarria *bai* eta *ez* partikulen gainean eraikitzen denean, *baietz* eta *ezetz* esapideak erabiltzen dira.

- MIKEL.- Nik **baietz** uste dut.
LOREA.- Nik **ezetz** uste dut.
MIKEL.- Zu, beti bezala, ezkor.
LOREA.- Zu, ordea, beti baikor.
MIKEL.- Hitz egin al duzu berarekin?
LOREA.- Ez.
MIKEL.- Bada, nik hitz egin dut berarekin, eta **baietz** esan dit.
LOREA.- **Baietz** esan zizula, sinesten dut. Baina, ez dut uste etorriko denik.
MIKEL.- Ander hitzeko mutila da. Hark **baietz** esaten badu, **baiezkoa** da.
LOREA.- Ez **naiz** batere fio. Haren **baiezkoa** berehala eraman ohi du haizeak.
MIKEL.- Lorea! Ander nire laguna da. Kontuz gero zer esaten duzun.
LOREA.- Bai, hori egia da. Biok oso lagunak zarete. Eta ongi dakizu haren **baiezkoa**, askotan, **ezezko** bihurtu izan dela. Bostak dira eta oraindik ez da etorri.
MIKEL.- Bostak? Arraioa! Bada, ni etorriko zelakoan nengoen; eta, orain ez nago hain seguru.
LOREA.- Orduan, zer diozu, **baietz** ala **ezetz**?
MIKEL.- Bada, ni **baiezkoan** nago oraindik, baina dagoeneko zalantzak ditut.
LOREA.- Mikel eta Ander, Ander eta Mikel, a zer pareta; barraskiloa eta bareta, bareta eta barraskiloa. Gozen hemendik!

Haren **baiezkoa** berehala eraman ohi du haizeak.

Bada, ni **baiezkoan** nago oraindik.

Baietz eta **ezetz** formek *-ko* atzizkiarekin izenlagunak sor ditzakete.